

CAIXABANK PAYMENTS & CONSUMER, S.A.ren PRIBATUTASUN-POLITIKA

AURKIBIDEA

1. Nola tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?
2. Nork tratatzen ditu zure datuak?
3. Datuak Babesteko Ordezkarria
4. Eskubideak baliatzea eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) aurrean erreklamazioak aurkeztea
5. Trataturako datuak
6. Zer tratamendu egiten ditugu zure datuekin?
 - 6.1. Baimenean oinarritutako tratamenduak
 - 6.2. Kontratu-harremanak gauzatzeko beharrezkoak diren tratamenduak
 - 6.3. Arauzko betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren tratamenduak
 - 6.4. CaixaBank Payments & Consumeren interes legitimoan oinarritutako tratamenduak
7. Datuen hartzaileak
8. Datuak gordetzeko epeak
9. Europako Esparru Ekonomikotik kanpo egindako datuen transferentziak
10. Erabaki automatizatuak
11. Berrikuspena

1. Nola tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Gurekin dituzun harremanak kudeatzeko, CaixaBank Payments & Consumer-en zure datu pertsonalak hainbat helburu betetzeko tratatuko ditugu, betiere indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera, zure eskubideak errespetatuz eta gardentasun osoarekin.

Horretarako, **Pribatutasun-politika honetan**, noiznahi atzi dezakezuna www.caixabankpc.com/politicaprivacidad helbidean, kontsultatu **ahal izango duzu nola erabiliko ditugun zurekin ezartzen ditugun harremanetan datuak eta horien** xehetasun osoa.

Zure datu pertsonalekin gauzatuko ditugun tratamenduak, nagusiki, araudi hauek arautzen dituzte:

- > 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **2016/679 (EB) Erregelamendua**, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta zeinaren bitartez indargabetzen baita 95/46/CE Direktiba (aurrerantzean, **DBEO**)
- > abenduaren 5eko **3/2018 Lege Organikoa**, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa (aurrerantzean, **DBLO**)

2. Nork tratatzen ditu zure datuak?

Tratamenduaren arduraduna: Gurekin dituzun kontratu- eta negozio-harremanetako ("Kontratu-harremanak") zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna **CaixaBank Payments & Consumer**, E.F.C., E.P., S.A. da ("**CaixaBank Payments & Consumer**" edo "**Erakundea**"), bere IFZ A-08980153 da eta egoitza helbide honetan du: Avenida de Manoteras 20, Edificio París. Madrid (28050).

Tratamenduaren erantzunkideak: Gainera, politika honetan zehaztasunez jakinaraziko dizkizugun tratamendu jakinetarako, CaixaBank Payments & Consumer-ek beste enpresa batzuekin batera tratatuko ditu zure datuak, batera erabakiz **helburuak ("zertarako erabiltzen dira datuak")** eta **erabilitako bitartekoak ("nola erabiltzen dira datuak")**, eta beraz, tratamendu horien **erantzunkide izango dira**.

CaixaBank Payments & Consumer-ek zure datuak beste enpresa batzuekin batera tratatzen dituen tratamenduak 6. epigrafean ("**Zer tratamendu gauzatzen ditugu zure datuekin**") zehaztasunez deskribatzen dira.

Horrez gain, zure datuak tratatzen dituzten enpresen zerrenda eta, halaber, erantzunkidetasunean burutzeko tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak aurkituko dituzu web-orri honetan: www.caixabank.es/empresasgrupo.

3. Datuak Babesteko Ordezkarria

CaixaBank Payments & Consumer eta CaixaBank taldeko enpresek **Datuak Babesteko Ordezkarri** bat izendatu dugu, eta berak artatuko zaitu zure datu pertsonalen tratamenduarekin eta zure eskubideen erabilpenarekin zerikusia duten edozein galderari erantzuteko.

Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke zure iradokizun, kontsulta, zalantza edo erreklamazioak helarazteko, hurrengo helbidea erabiliz

: zalantza edo erreklamazioak helarazteko hurrengo zerrenda elektronikoa erabilita: www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos.com.

4. Eskubideak baliatzea eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) aurrean erreklamazioak aurkeztea

Hurrengo eskubideak erabil ditzakezu: **datuetara sartzea, zuzentzea, aurka egitea, kentzea, mugatzea, eramangarritasuna, baimena kentzea** eta **legearen arabera automatizatutako erabaki baten xede ez izatea**.

Hurrengo edozein kanal erabil dezakezu eskubide horien gauzatzea eskatzeko:

- > jendearentzako zabalik dauden **CaixaBank**, S.A.-ren bulegoetan;

- > www.caixabankpc.com webgunean eta **mugikorrerako gure aplikazioetako** eremu pribatuan gaitutako aukeren bitartez;
- > [www.caixabankpc.com/ejercicio de derechos helbide elektronikoan](http://www.caixabankpc.com/ejercicio_de_derechos_helbide_elektronikoan); eta
- > **Apartado de Correos** nº 209, 46080 Valencia helbidera idazki bat bidalita. 46080.

Horrez gain, erreklamaziorik egin nahi baduzu zure datuen tratamenduaren inguruan, **Datuak Babesteko Espainiako Agentziara** jo dezakezu (www.aepd.es).

5. Trataturako datuak

Politika honetan azalduko dizkizugun tratamenduetarako, jarraian zehazten diren datuak erabiliko dira.

Jakinazten dizkizugun datu guztiak ez dira erabiliko datuen tratamendu guztietarako. 6. epigrafean azaltzen dira, hain zuzen, egiten ditugun datuen tratamenduak, eta berariaz kontsultatu ahal izango dituzu, tratamendu bakoitzerako tratatzen diren datuen tipologia.

Zure adostasunean oinarritutako tratamenduen kasuan, gainera, erabiliko diren datu zehatzen xehetasuna jakinaraziko dizugu.

6. epigrafean adierazitako tratamendu desberdinekin erabiltzen dituzten datuen tipologia eta xehetasunak hurrengoak dira:

> **Zure kontratuen altan edo gurekin izandako harremanean zehar elkarrizketa edo formularioen bitartez eman izan dizkiguzun datuak.**

Hauek dira datuen tipologia eta xehetasunak:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea, nazionalitatea, jaiotze-data, komunikatzeko hizkuntza, nortasun-agiria, irudia eta ahotsa.
- **Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak:** jarduera profesionala edo lan-jarduera, diru-sarrerak edo ordainsariak, familia-unitatea edo -multzoa, ikasketa-maila, ondarea, datu fiskalak eta zerga-datuak.
- **Datu biometrikoak:** zuk hala baimentzen duzunean, aurpegi-patroia eta sinaduraren trazua.
- **Gaitasun juridikoari buruzko datuak:** pertsona baten jarduteko gaitasunari buruzko datuak, epai batean ezarriak.
- **Komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak:** desgaitasuna duten interesdunek emandako datuak, elkarrizketarako eta kudeaketa operatiborako irisgarritasuna ahalbidetzeko.
- **Ahulezia egoerei dagozkien datu sentikorrak:** ahuleziako egoera pertsonalei dagozkien datuak, titularrek eskatutako kontratuen kudeaketan neurri bereziak hartzeko beharrezkoak izan daitezkeenak.

> **Eskaintzen dizkizuten produktu eta zerbitzuen kontratazioan eta mantentzean atzitutako datuak (berezkoak edo hirugarrenenak).**

Hauek dira datuen tipologia eta xehetasunak:

- **Kontratazio-datuak:** kontratatutako edo eskatutako produktu eta zerbitzuak, kontratatutako produktu eta zerbitzuaren titular, baimendu edo ordezkari egoera, baloreen merkatuko eta finantza-tresnen arloko araudiaren araberako kategorizazioa (MIFID kategoria), egin dituzun inbertsioei buruzko informazioa eta haien bilakaera, eta finantzaketa-eragiketen informazioa eta mugimenduak.
- **Oinarritako datu finantzarioak:** uneko saldoak eta produktu eta zerbitzuen historikoak, eta kontratatutako produktu eta zerbitzuen ordainketa-historia.
- **Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagiritan ikusitako hirugarrenen datuak:** hirugarren jaulkitzaileek zure kontuetan egiten dituzten ohar eta mugimenduei buruzko informazioa, barnean hartuta eragiketa mota, jaulkitzailea,

zordunketa-, kreditu- eta aurreordainketa-txartelekin egindako eragiketen ordainagiri eta laburpenetan agertzen diren zenbatekoa eta kontzeptua.

- **CaixaBank-eko akziodun izatearen ala ez izatearen datuak:**CaixaBank-en akzioak dituzun ala ez.
- **Zurekin izandako komunikazioei buruzko datuak:** txat, horma, bideo-konferentzia, telefono-dei edo baliokideak diren bitartekoak erabiliz lortutako datuak.
- **Berezko nabigazio-datuak:** zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu, gure web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egindako nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egiten duzun nabigazioa: nabigazioaren historiala (bisitatutako orriak, edukietan egindako klikak), gailuaren IDa, publizitate IDa, IP helbidea eta instalatutako aplikazioaren bertsioa.
- **Datu geografikoak:** aplikazioan bertan konfiguratzeko baimena eman duzunean, saltokiek txartelarekin egiten dituzten eragiketen kokapenari buruzko datuak eta gailu mugikorraren geolokalizazioari buruzko datuak, gure aplikazio mugikorren instalazioan edota erabileran emanak direnean.

> Gainerako datuen analisi eta tratamendutik ondorioztatutako eta eratorritako datuak.

Hauek dira datuen tipologiak eta xehetasunak:

- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:** politika honetan aurreikusitako tratamenduak egiteko eskuratutako datuak, zeinak xehatuko diren hura aplikagarria den tratamenduen informazioan.
- **Eredu estatistikoak exekutatzetik lortutako datuak:** bezeroen datuekin eredu matematikoak aplikatzetik lortutako emaitzak erabiltzen ditugu, iruzurraren aurka borrokatzeko, haien kontsumo-ohiturak, kontratatzeke lehentasunak edo joerak edo bezeroen sailkapena ondorioztatzeke (ikus 6.4.A atala <https://www.caixabank.es/particular/general/politica-privacidad.html>), gure araubetebeharrak betetzea eta produktuen eta/edo zerbitzuen operatiboak kudeatzea (6.4.E epigrafean definitutako tratamendua).

> Sarbide publikoko iturrietatik, erregistro publikoetatik edo kanpoko iturrietatik lortutako datuak. Hauek dira datuen tipologiak eta xehetasunak:

- **Kreditu-informazioko sistemen datuak:** Asnef eta Badexcug kreditu-informazioko fitxategiak kontsultatzetik lortutakoak; izan ere, zor, ondare- eta kreditu-kaudimenari buruzko informazioa ematen dute (zorduna, hartzekoduna eta zorra).
- **Equifax-en RISK SCORE datuak:** kuoten bidezko finantzaketa- edo ordainketa-eragiketetan, 12 hilabeterako ez-ordainketa egoeren kenketa-sistema horrek ematen duen emaitza erabiliko dugu, Equifax bidez kalkulatu, zure datuen (NANA, bizilekuaren posta-kodea eta kreditu-informazioko sistemetak datuak) gainean eredu estatistiko eta matematikoak aplikatuta.
- **CIRBE datuak:** beste erakunde batzuetan arriskuak (finantzaketak) dituzun kontsultatuko dugu. Datu horiek Espainiako Bankuaren Arriskuen Informazio Zentralaren (CIRBE) eskutik lortuko ditugu.
- **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuak:** ordaintzailearen identifikazio- eta harreman-datuak, lanbide- edo lan-jardueraren datuak (EJSN, bere konturako edota besteren konturako langilea, langilearen kotizazio-taldea).
- **Nazioarteko zigorrei buruzko datuak:** Nazio Batuek, Europar Batasunak, Espainiako Erresumak eta baita Erresuma Batuko Office of Financial Sanctions Implementation (OFSI) of Her Majesty's Treasury (HTM) edota U.S. Department of the Treasury's Office of Foreign Assets Control (OFAC) erakundeak ezarritako nazioarteko zigor ekonomiko-finantzarioen gaietako lege, erregulazio, zuzentarau, ebazpen, programa edo neurri murriztaileetan barne hartuta dauden pertsona edo erakundeen datuak.
- **Datu demografikoak eta sozioekonomikoak:** pertsona jakinei lotu gabeko datu estatistikoak dira, eremu geografiko, adin-tarte edo jarduera profesionaleko sektoreei lotutakoak; datu horiek bezeroen informazioarekin erlazionatzeko erabiliko ditugu.

- **Zurekin lotutako higiezin eta ibilgailuei buruzko datuak:** katastrofik lotutako datuak eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusian ibilgailuei buruz lotutako oinarritzko datuak, zeinak zure higiezin eta ibilgailuei buruzko informazioa osatzeko erabiliko baititugu.
- **Administratzaile, kargu funtzional eta sozietate-loturei buruzko datuak:** INFORMAren datu-baseetatik ateratako datuak dira, eta zure jarduerari buruzko informazioa osatzeko erabiliko ditugu.
- **Nekazaritzako diru-laguntzen eta aseguruaren datuak:** Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtsak (FEGA) eta Nekazaritza Aseguruaren Estatuko Erakundeak (ENESA) argitaratutako datuak.
- **Gurekin horiek partekatzeko baimena eman diezun hirugarren enpresen datuak:** akordioak ditugun beste enpresa batzuk zuri buruz tratatzen dituzten datuak, eta zuk gurekin informazioa partekatzeko baimendu dituzunak.
- **Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak:** sarbide publikoko iturriek eta erregistro publikoek emandako datuak dira, kontratu-harremanen alta, mantentze eta betetzean ematen diguzun informazioa, Equifax-en konkurtso-egoeren kontsulten fitxategiaren informazioa eta telefono bidezko direktorioetan (Páginas Blancas, Páginas Amarillas, Lleida.net) eta INFORMAren datu-baseetatik lortutako harremanetarako datu osagarriak egiaztatzeko eta gure bezeroekin harremanetan jartzeko, kontratu-betebeharrak betetzen ez diren kasuetan.

Datu-base horiek aldeztatik legitimatuta daude informazio hori eskuratzeko.
- **Nabigazio-datuak:** zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu, hirugarrenen web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egindako nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egiten duzun nabigazioa: nabigazioaren historiala (bisitatutako orriak, edukietan egindako klikak), gailuaren IDa, (publizitate IDa, IP helbidea).
- **Sare sozialetatik edo Internet bidez lortutako datuak:** atzitzeko baimena eman diguzun sare sozialetako edo Internet bidezko datuak.

6. Zer tratamendu egiten ditugu zure datuekin?

Zure datuekin askotariko tratamenduak egingo ditugu, eta hainbat helburu eta oinarri juridikori dituzte:

- Baimenean oinarritutako tratamenduak
- Kontratu-harremanak gauzatzeko beharrezkoak diren tratamenduak
- Arauzko betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren tratamenduak
- CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoan oinarritutako tratamenduak

Jarraian xehatzen ditugun tratamendu orokorrez gain, politika honetan sartzan ez diren tratamendu espezifikoak gauza ditzakegu, produktu edo zerbitzuen inguruan zuk egindako eskaeren ondorioz. Eskaera zehatza izapidetzeko unean emango dizugu tratamendu horiei buruzko informazio xehatua.

6.1 BAIMENEAN OINARRITUTAKO TRATAMENDUAK

Zure **adostasuna** da tratamendu horien oinarri juridikoa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Baimen hori hainbat kanalen bidez eskatu ahal izango dizugu, adibidez, bezero gisa alta eman zenuen elkarrizketan, zure kudeatzailearen bidez (aurrez aurre edo urrunetik), gure kanal elektronikoaren edo mugikorren aplikazioen bidez, lankidetzak-hitzarmenak ditugun enpresa baten bitartez ("Preskriptoreak"), CaixaBank Taldeko enpresaren batean, zeina tratamendu jakinarekin erantzunkide den, edo CaixaBankekin fusionatu aurretik Bankia S.A. enpresaren edozein kanalen bidez.

Arrazoiak edozein dela ere, ez badizugu inoiz baimen hori eskatu, tratamendu horiek ez zaizkizu aplikatuko.

Eman edo kendu dizkiguzun baimenak kontsulta ditzakezu, eta noiznahi eta doan zure erabakia alda dezakezu CaixaBank Payments & Consumeren webgunean www.caixabankpc.es eta tratamendu jakinaren enpresa erantzunkide bakoitzaren webgunean, CaixaBanken bulegoetan, edo CaixaBank Payments & Consumeren web edo mugikorreko aplikazioetako eremu pribatuan.

Horietako bakoitzerako hurrengo adieraziko dugu: helburuaren deskribapena (**Helburua**), tratatutako datuen xehetasuna (**Tratatutako datuak**), beharrezkoa bada, profilen erabilerari buruzko informazioa (**Profilen erabilera**), tratamenduaren inguruko bestelako beharrezko informazioa (**Bestelako informazio garrantzitsua**), eta CaixaBank taldeko beste enpresa batzuekin erantzunkidetasunean egindako tratamenduak diren ala ez (**Tratamenduaren erantzunkideak/arduraduna**).

Bankia-ri zure datuen tratamendurako baimenak eman badizkiozu helburu komertzialekin hura CaixaBank-ekin fusionatu aurretik, jarraian adieraziko dizkizugun A, B eta C tratamenduak zuk Bankia-ri eta ez CaixaBank-i adierazi zenizkion lehentasunen arabera gauzatuko dira.

Zehazki, hurrengo A eta B ataletan deskribatutako tratamenduak CaixaBank taldeko enpresek erantzunkidetasunean egingo dira soilik, zuk Bankia taldeko enpresen artean (orain CaixaBank) datuak komunikatzea baimendu baduzu.

A. Produktuen eta zerbitzuen eskaintza pertsonalizatzea datuen analisiaren arabera

Helburua: Baimena ematen badiguzu, jarraian adieraziko dizkizugun datuak erabiliko ditugu zuri buruzko profil komertziala sortzeko. Horri esker, gai izango gara zure lehentasun edo beharrak ezagutzeko eta, zure kudeatzailearen bitartez (aurrez aurre edo urrutitik), zure interesekoak izan daitezkeen enpresa erantzunkideek merkaturatutako produktu eta zerbitzuak eskaintzeko, zure lehentasun eta behar horien arabera.

Datuen tratamendu horren bidez, zure interesekoak izan daitezkeen eskaintza pertsonalizatuak egin ditzakegu, eskaintza generikoen ordez.

Gainera, "Produktu eta zerbitzuen eskaintza kanalen bidez komunikatzea" (6.1.B atala) aukerarako baimena ematen badiguzu, zure interesekoak izan daitezkeen enpresa erantzunkideek merkaturatutako produktu eta zerbitzuak eskainiko dizkizugu, baimendutako beste kanal batzuen bidez hautemandako zure lehentasun eta beharren arabera.

Tratatutako datuak: Tratamendurako ez ditugu erabiliko datu hauek ezagutarazten dituztenak: zure etnia edo arraza, iritzi politikoak, iritzi erlijioso edo filosofikoak, sindikatu-afiliazioa, datu genetikoak, zu adierabakarrean identifikatzeko datu biometrikoak, osasunari buruzkoak, edo zure bizitzari edo sexu-orientazioari buruzkoak

Helburu horretarako, datu hauek tratatuko ditugu:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea, nazionalitatea eta jaiotze-data, komunikatzeko hizkuntza eta nortasun-agiria.
- **Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak:** jarduera profesionala edo lan-jarduera, diru-sarrerak edo ordainsariak, familia-unitatea edo -multzoa, ikasketa-maila, ondarea, datu fiskalak eta zerga-datuak.
- **Kontratazio-datuak:** kontratatutako edo eskatutako produktu eta zerbitzuak, kontratatutako produktu eta zerbitzuaren titular, baimendu edo ordezkari egoera, baloreen merkaturako eta finantza-tresnen arloko araudiaren araberako kategorizazioa (MIFID kategoria), egin dituzun inbertsioei buruzko informazioa eta haien bilakaera, eta finantzaketa-eragiketen informazioa eta mugimenduak.
- **Oinarrizko datu finantzarioak:** uneko saldoak eta produktu eta zerbitzuen historikoak, kontratatutako produktu eta zerbitzuen ordainketa-historiala (berezkoak edo hirugarrenenak).
- **Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagiritan ikusitako hirugarrenen datuak:** hirugarren jaulkitzaileek zure kontuetan egiten dituzten ohar eta mugimenduei buruzko informazioa, barnean hartuta eragiketa mota, jaulkitzailea, zordunketa-, kreditu- eta aurreordainketa-txartelekin egindako eragiketen ordainagiri eta laburpenetan agertzen diren zenbatekoa eta kontzeptua.

- **CaixaBank-eko akziodun izatearen ala ez izatearen datuak:** CaixaBank-en akzioak dituzun ala ez.
- **Zurekin izandako komunikazioei buruzko datuak:** txat, horma, bideo-konferentzia, telefono-dei edo baliokideak diren bitartekoak erabiliz lortutako datuak.
- **Berezko nabigazio-datuak:** zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu, gure web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egindako nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egiten duzun nabigazioa: nabigazioaren historiala (bisitatutako orriak, edukietan egindako klikak), gailuaren IDa, publizitate IDa, IP helbidea eta instalatutako aplikazioaren bertsioa.
- **Datu geografikoak:** aplikazioan bertan konfiguratzeko baimena eman duzunean, saltokiek txartelarekin egiten dituzten eragiketen kokapenari buruzko datuak eta gailu mugikorraren geolokalizazioari buruzko datuak, gure aplikazio mugikorren instalazioan edota erabileran emanak direnean.
- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:**
 - Arriskuen ebaluaziorako datuak edo *scoring-a*: kuoten bidezko finantzaketa- edo ordainketa-eragiketetan, ordaintzeko edo ez ordaintzeko den ahalmena edo arrisku-mugak ondorioztatuko ditugu, horien datuekin kalkulatzeko diren eredu matematiko estatistikoak aplikatuta (6.2.b epigrafean zehaztutako tratamendua).
 - Bezeroak sailkatzeko datuak (6.4.A epigrafean zehaztutako tratamendua <https://www.caixabank.es/particular/general/politica-privacidad.html> helbidean).
- **Eredu estatistikoak exekutatzetik lortutako datuak:** bezeroen datuekin eredu matematikoak aplikatuzetik lortutako emaitzak erabiltzen ditugu, haien kontsumo-ohiturak, lehentasunak/kontratazio-joerak edo bezeroen sailkapena ondorioztatzeko.
- **Datu demografikoak eta sozioekonomikoak:** pertsona jakinei lotu gabeko datu estatistikoak dira, eremu geografiko, adin-tarte edo jarduera profesionaleko sektoreei lotutakoak; datu horiek bezeroen informazioarekin erlazionatzeko erabiliko ditugu.
- **Zurekin lotutako higiezin eta ibilgailuei buruzko datuak:** katastrofik lortutako datuak eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusian ibilgailuei buruz lortutako oinarritzko datuak, zeinak zure higiezin eta ibilgailuei buruzko informazioa osatzeko erabiliko baititugu.
- **Administratzaile, kargu funtzional eta sozietate-loturei buruzko datuak:** INFORMAREN datu-baseetatik ateratako datuak dira, eta zure jarduerari buruzko informazioa osatzeko erabiliko ditugu.
- **Nekazaritzako diru-laguntzen eta aseguruaren datuak:** Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtsak (FEGA) eta Nekazaritza Aseguruaren Estatuko Erakundeak (ENESA) argitaratutako datuak.
- **Gurekin horiek partekatzeko baimena eman diezun hirugarren enpresen datuak:** akordioak ditugun beste enpresa batzuk zuri buruz tratatzen dituzten datuak, eta zuk gurekin informazioa partekatzeko baimendu dituzunak.
- **Nabigazio-datuak:** zure nabigazio-gailuetan cookieak eta antzeko teknologiak erabiltzea onartu baduzu, hirugarrenen web-orrietan edo aplikazio mugikorretan egindako nabigazioetatik lortutako datuak eta horietan egiten duzun nabigazioa: nabigazioaren historiala (bisitatutako orriak, edukietan egindako klikak), gailuaren IDa, (publizitate IDa, IP helbidea).
- **Sare sozialetatik edo Internet bidez lortutako datuak:** atzitzeko baimena eman diguzun sare sozialetako edo Internet bidezko datuak.

Profilen erabilera: Tratamendu honetarako, profil komertzial bat sortuko dugu, eskusiboki gure produktu eta zerbitzuen eskaintza pertsonalizatzeko erabiliko duguna:

- **Profilaren helburua:** Erabilitako profilaren helburua da zer produktu eta zerbitzu interesa dakizkizukeen ondorioztatzea, zuri buruz daukagun informazioan oinarrituz, horien kontratazioa eskaintzeko, eskaintza komertzial generikoak eskaini beharrean.

- **Ondorioak:** Tratamendua baimentzen baduzu, profil komertzialak erabiliko ditugu eskaintzen dizkizugun produktu edo zerbitzuak zein diren erabakitzeko. Ez baduzu baimentzen, zure informazioa ez dugu erabiliko eskaintza komertziala pertsonalizatzeko.

Profil-lanketa hori ez dugu inolaz ere erabiliko produktu edo zerbitzurik ukatzeko, ezta kreditu-mugak zehazteko ere. Tratamendu hori ez onartzeak ez du eragotzi, mugatu edo baldintzatzen gure produktu eta zerbitzuen katalogo osorako sarbidea, eskura izango baituzu beti.

Edozein produktu edo zerbitzuren kontratazioa eskatzen baduzu, eskaera zurekin ebaluatuko da gure prozedura arrunten arabera, produktuen eskaintza pertsonalizatzeko zure datuen analisia onartzeak ala ez onartzeak eraginik izan gabe balioztatze horretan.

Tratamendu hori ez onartzeak ere ez du eragotziko zurekin harremanetan jartzea kontratatuta daukazun produktu eta zerbitzuen kudeaketa operatiborako.

- **Logika:** "Tratatutako datuak" atalean adierazitako datuetatik abiatuz kalkulatu da bezero baten profila.

Datu horiei antzeko ezaugarriak dituzten bezeroei iraganean hautemandako portaeretatik abiatuz lortutako formula matematikoak aplikatuko zaizkie, etorkizunean bezeroaren jokabidean eragite aldera. Formula matematiko horiek aukera ematen dute eskatzailearen profilaren amaierako emaitzan tratatutako datu bakoitzaren garrantzia zehazteko.

Horren azken emaitza bezeroak produktu edo zerbitzu batean duen interesaren probabilitatea da.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Ordaintzeko gaitasunaren alde aurreko egiaztapena:** Igorri nahi dizkizugun eskaintzak kuoten ordainketa edo finantzaketa ondorio duten produktu eta zerbitzuetan oinarritzen direnean, ordaintzeko zure gaitasuna egiaztatuko dugu alde aurretik.

Egiaztapen hori gure Pribatutasun-politikaren 6.2.B epigrafean xehatutako tratamenduaren bidez egingo dugu, zure finantza-egoeraren inguruan dugun ezagutzarako egokiak diren kreditu-muga eta itzultze-epea eskaintzeko Espainiako Bankuak eskatzen dituen finantzaketa-produktuen eskaintzarako erantzukizun-printzipioei jarraikiz, kreditu- eta mailegu-erakunde arduratsuen zuhurtziazko gainbegiratzearen eta kaudimenaren araudiaren arabera.

Tratamendu hori ez onartzeak ez ditu eragotzi, mugatu edo baldintzatzen gure produktu eta zerbitzuen katalogo osoa atzitzea, eta, eskaera egiten baduzu, zurekin ebaluatuko dugu gure prozedura arrunten arabera.

- **Tratamenduaren indarraldia:** Datuen tratamendua gauzatuko dugu soilik horretarako adostasuna eman badiguzu, eta horretarako, zure adostasuna indarrean mantenduko da zuk kentzen ez duzun bitartean. Gurekin dituzun produktu edo zerbitzu guztiak ezeztatzen badituzu, **baina zure adostasuna kentzea ahazten bazaizu, guk kenduko dugu automatikoki.**

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo enpresek tratatuko dituzte zure datuak erantzunkidetasunean.

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- Wivai Select Place, S.A.U.
- ImaginersGen, S.A.
- VidaCaixa, S.A.U. de Seguros y Reaseguros

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioaren funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

B. Produktu eta zerbitzuen eskaintza kanaletatik jakinaraztea

Helburua: zure baimena badugu, zure eskura jarriko dugu gure produktu eta zerbitzuen eskaintza, baimentzen dizkiguzun kanal hauen bidez: aplikazio mugikorrek, ingurune digitalak eta kanal elektronikoak, gutuna edo telefonoa.

Baimendutako kanalen bidez komunikatzeko erabiliko ditugun datuak aldatu egingo dira datuen analisiaren arabera produktuen eskaintza pertsonalizatzeko aukera eman badiguzu ala ez:

- Gure eskaintza komertziala pertsonalizatzeko zure baimenik ez badugu (aurreko A tratamendua), identifikatzeko eta harremanetarako datuak soilik erabiliko ditugu, eskaintza generikoak helarazteko.
- Gure eskaintza komertziala pertsonalizatzeko zure baimena badugu (aurreko A tratamendua), 6.1.A tratamenduan aipatzen den zure profil komertzialeko informazioa ere erabiliko dugu zuri eskaintza pertsonalizatuak helarazteko .

Tratatutako datuak: Tratamendurako ez ditugu erabiliko datu hauek ezagutarazten dituztenak: zure etnia edo arraza, iritzi politikoak, iritzi erlijioso edo filosofikoak, sindikatu-afiliazioa, datu genetikoak, zu adierabakarrean identifikatzeko datu biometrikoak, osasunari buruzkoak, edo zure bizitzari edo sexu-orientazioari buruzkoak.

Helburu horretarako, datu hauek tratatuko ditugu:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea eta komunikatzeko hizkuntza.
- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:**
 - **Datuen analisiaren arabera produktuen eta zerbitzuen eskaintza pertsonalizatzearen datuak:** gure eskaintza komertziala pertsonalizatzeko zure baimena badugu (aurreko A tratamendua), 6.1.A tratamenduan aipatzen den zure profil komertzialeko informazioa ere erabiliko dugu zuri eskaintza pertsonalizatuak helarazteko .

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduaren indarraldia:** Datuen tratamendua gauzatuko dugu soilik horretarako adostasuna eman badiguzu, eta horretarako, zure adostasuna indarrean mantenduko da zuk kentzen ez duzun bitartean. Gurekin dituzun produktu edo zerbitzu guztiak ezeztatzen badituzu, baina zure adostasuna baztertzea ahazten bazaizu, automatikoki baztertuko dugu guk.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo enpresek tratatuko dituzte zure datuak erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- Wivai Select Place, S.A.U.
- ImaginersGen, S.A.
- VidaCaixa, S.A.U. de Seguros y Reaseguros

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

C. Datuak beste enpresa batzuei lagatzea eskaintza komertzialak bidaltzeko.

Helburua: Zure baimena ematen badiguzu, haiekin akordioak ditugun beste enpresei lagako dizkiegu jarraian adieraziko dizkizugun datuak, horiek merkaturatzen dituzten produktuen eskaintza komertzialak helarazteko.

Tratamendu hori onartzen ez badiguzu, ez ditugu lagako zure datuak; onartzen baduzu, berriz, beste enpresa batzuei jakinaraziko dizkiegun datuak aldatu egingo dira, zure datuen analisiaren arabera produktuen eskaintzaren pertsonalizazioa baimendu duzun ala ez:

- Gure eskaintza komertziala pertsonalizatzeko zure baimenik ez badugu (aurreko A tratamendua), identifikatzeko eta harremanetarako datuak soilik jakinaraziko dizkiegu enpresa horiei.
- Gure eskaintza komertziala (aurreko A tratamendua) pertsonalizatzeko zure baimena eman badiguzu, zure profil komertzialaren informazioa ere jakinaraziko diegu enpresa horiei; hori zure lehentasun eta beharretatik ondorioztatutako informazioan datza, ordaintza edo ez ordaintze probabilitatetik edo arrisku-mugetatik ondorioztatutako informazioarekin batera.

Zure datuak laga diezazkiekegun hirugarren enpresa horiek jarduera hauetan aritzen dira:

- banku-jarduerak
- inbertsio-zerbitzuak
- aseguruak eta berraseguruak
- arrisku-kapitala
- higiezinak
- bideak
- ondasun eta zerbitzuen salmenta eta banaketa
- aholkularitza-zerbitzuak
- aisialdia, eta
- ongintza-sozialak

Tratatutako datuak: Tratamendurako ez ditugu erabiliko datu hauek ezagutarazten dituztenak: zure etnia edo arraza, iritzi politikoak, iritzi erlijioso edo filosofikoak, sindikatu-afiliazioa, datu genetikoak, zu adierabakarrean identifikatzeko datu biometrikoak, osasunari buruzkoak, edo zure bizitzari edo sexu-orientazioari buruzkoak.

Helburu horretarako, datu hauek tratatuko ditugu:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea, nazionalitatea eta jaiotze-data, komunikatzeko hizkuntza eta nortasun-agiria.
- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:**
 - **Datuen analisiaren arabera produktuen eta zerbitzuen eskaintza pertsonalizatzearen datuak:** gure eskaintza komertziala pertsonalizatzeko zure baimena badugu (aurreko A tratamendua), 6.1.A tratamenduan aipatzen den zure profil komertzialeko informazioa ere erabiliko dugu zuri eskaintza pertsonalizatuak helarazteko .

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Lagapenari buruzko informazioa:** Zure datuak lagatzeko hirugarren enpresa batekin hitzarmen bat egingo bagenu, enpresa hartzaileak egoera horren berri emango lizuke, eta emandako datuen eta burutuko duen tratamenduari buruzko xehetasunak ere emango dizkizu.
- **Tratamenduaren indarraldia:** Datuen tratamendua gauzatuko dugu soilik horretarako adostasuna eman badiguzu, eta horretarako, zure adostasuna indarrean mantenduko da zuk kentzen ez duzun bitartean. Gurekin dituzun produktu edo zerbitzu guztiak ezeztatzen badituzu, baina zure adostasuna baztertea ahazten bazaizu, automatikoki baztertuko dugu guk.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo enpresek tratatuko dituzte zure datuak erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- Wivai Select Place, S.A.U.
- ImaginersGen, S.A.
- VidaCaixa, S.A.U. de Seguros y Reaseguros

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

D. Bezeroak identifikatzea eta dokumentazioa biometria bidez sinatzea

Helburua: Zure adostasuna baldin badugu, biometria erabiltzen duten bitarteko teknikoak erabiliko ditugu zure nortasuna egiaztatu eta CaixaBank Payments & Consumer-ekin eragiketak edo kontratuak sinatzeko.

Tratatutako datuak: Helburu horretarako, datu hauek tratatuko ditugu:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua eta identifikazio-dokumentua.
- **Datu biometrikoak:** aurpegiaren eredua edo hatz-markaren eredua.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Zure biometria erregistratzea guztiz borondatezkoa da:** Datuen tratamendua burutuko dugu soilik horretarako adostasuna eman badiguzu. Adostasuna indarrean mantenduko da hori baztertu ezean. Tratamendua ez onartzeak ez du esan nahi CaixaBank Payments & Consumer-ek eskainitako produktu edo zerbitzuetarako sarbiderik izango ez duzunik. Kasu horretan, zure nortasuna eta sinadura egiaztatzeko izapideak biometria ez darabilten bitartekoez egingo dugu.
- **Tratamenduaren indarraldia:** Zure datuak tratatuko ditugu soilik baimena eman badiguzu alta-prozesuan, zure nortasuna baieztatzeko, eta, ondoren, araudiak eskatzen duen aldian blokeatuko ditugu datuok, legezko betebeharrak betetzeko edo erreklamazioak formulatzeko, gauzatzeko edo defendatzeko.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

6.2 KONTRATU-HARREMANAK GAUZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN TRATAMENDUAK

Datuen tratamendu horien oinarri juridikoa da zuk eskatutako edo zu parte zaren kontratuak kudeatzeko edo, eskatzen baduzu, kontratu aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoak direla, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 6.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hortaz, gurekin kontratu-harremanak ezarri eta mantendu ahal izateko beharrezko tratamenduak dira. Horien kontra bazaude, harreman horiek amaituko genituzke, edo ezingo genituzke ezarri oraindik hasi gabe baleude.

Jarraian adieraziko dira kontratu-harremanak egikaritzeko beharrezko tratamenduak (A)tik (B)era ordenatuta. Horietako bakoitzerako hurrengoa adieraziko dugu: helburuaren deskribapena (**Helburua**), tratatutako datuen tipologia (**Tratatutako datuen tipologia**), beharrezkoa bada, profilen erabilerari buruzko informazioa (**Profilen erabileria**), tratamenduaren inguruko bestelako beharrezko informazioa (**Bestelako informazio garrantzitsua**), eta CaixaBank taldeko beste enpresa batzuekin erantzunkidetasun erregimenean egindako tratamenduak diren edo ez (**Tratamenduaren erantzunkideak/arduraduna**).

A. Kontratu-harremanak formalizatu, mantendu eta egikaritzea

Helburua: Datuen tratamendu honen helburua da zuk eta guk ezartzen ditugun kontratu-harremanak formalizatu eta mantentzea, barne hartuz zure eskaeren edo aginduen tratamendua, gurekin zuzenean edo gure bitartekari baten bidez (esaterako, gure agentea den CaixaBank, S.A., edo gure edozein preskriptore, zeinak zu horien bezero izan zaitezkeen establezimendu komertzialak baitituzte) izapidetu daitezkeen kontratazio aurreko kudeaketak (kontratu aurreko harremanak), eta gurekin dituzun kontratuak betetzea ziurtatzeko neurriak ezartzea eta zorra berreskuratzeko kudeaketa gauzatzea, hala dagokionean.

Datuen tratamendu horrek harremana ezartzeko edo eskaera kudeatzeko beharrezko informazioa biltzea dakar berarekin, kontratazioaren egokitasuna balioztatzea eta beharrezko informazioa tratatzea kontratuak behar bezala egikaritu eta mantentzeko.

Hurrengoak dira kontratu-harremanak formalizatu, mantendu eta egikaritzean gauzatzen diren tratamendu-jarduerak:

- Eskatutako produktuak kontratatzeke beharrezko datu eta dokumentuak jasotzea eta erregistratzea
- Produktu eta zerbitzuen kontratuen sinadura formalizatzea.
- Gurekin kontratatu dituzun produktuen eta zerbitzuen operatiba kudeatzea. Horren barruan sartzen dira zure kontsulta operatiboetarako erantzutea, eratorritako gorabeheren kudeaketa, produktuen kobrantzen eta ordainketen kontabilitate-oharrak jasotzea eta egiaztatzea eta jakinarazpen operatiboak bidaltzea, bai eta produktu edo zerbitzu bereziak kontratatzeke hartutako konpromisoak betetzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak ere, hala nola fidelizazio-programak, komisioen edo interesen hobia eta eskaintza bereziak.
- Gerta litezkeen ez ordaintzeak argitzeko neurriak doitzea, barne hartzen duelarik zorra goiz kobratzeke kudeaketa, behar denean kanpoko agentzietarako jakinaraztea berreskuratzeko ekintzak egiteko, beharrezkoa denean kreditu-informazioko sistemietarako datuak jakinaraztea, demanda judizialak jartzeko eta haien segimendua egitea, hartzekodunen konkurtso egoeren identifikazioa eta jarraipena, eta zorroen salmentaren balorazioa.
- **Tratatutako datuen tipologia:** Helburu horretarako tratatutako ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:
 - Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
 - Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
 - Urrakortasun egoerari buruzko datu sentikorak
 - Datu biometrikoak
 - Gaitasun juridikoari buruzko datuak
 - Komunikaziorako behar berezietarako buruzko datuak
 - Kontratazio-datuak
 - Oinarrizko datu finantzarioak
 - Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagiritan ikusitako hirugarrenen datuak
 - Zurekin izandako komunikazioetarako buruzko datuak
 - Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
 - Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak
 - Arriskua ebaluatzeko datuak edo *scoringa* (6.2.B epigrafean definitutako tratamendua)
 - Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak
 - Kreditu-informazio sistemen datuak
 - Equifax-en RISK SCORE datuak

- CIRBE datuak
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuak
- Nazioarteko zigorrei dagozkien datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Erabaki automatizatuak:** Produktu edo zerbitzu baten kontratazioa eskatzen duzunean, mekanismoak erabiliko ditugu ezaugarri objektiboen arabera (adibidez, zure lan-egoera edo egoitza fiskala) produktua zure behar, interes eta helburuekiko egokia den ala ez egiaztatzeko.

Kategoria objektibo horien ezarpena produktu eta tresna finantzarioen gobernantza gaietako araudi-betebeharretatik eratortzen da, eta erakundearen produktuen diseinuko barne-politiketan kontuan hartzen da.

Produktua ez balitz egokia izango, ezingo da hori kontratatu, eta kontratazio-eskaera automatikoki ukatuko da, zure ezaugarri objektiboei kontratatu nahi duzun produktu jakinaren ezaugarriekin bat egiten duten mailaren arabera.

Erabaki automatizatua aurkaratu dezakezu edo **soilik tratamendu automatizatu batean oinarritutako erabaki baten objektu ez izateko zure eskubidea erabil dezakezu, zuzenean CaixaBank Payments & Consumerekin harremanetan jarriz, politika honen 4. epigrafean jakinarazitako kanalen bidez.**

- **Kreditu-informazioko sistemiei jakinaraztea:** Tratamendu horrek kreditu-informazio sistemiei zorraren edo ez ordaintze egoeraren datuak jakinaraztea eragin dezake, eta hori gure interes legitimoan oinarrituz egingo litzateke, 6.4.D atalean xehatutakoaren arabera.
- **Harremanetarako datuak eskuratzea:** Tratamendu horrek berekin ekar dezake zorra berreskuratzeke kanpo-agentziek zure harremanetarako datu gehigarriak lortzea, gure interes legitimoan oinarrituta, 6.4.E atalean zehazten dugunari jarraikiz.
- **Konpromisoak, deskontuak edo lehentasunezko baldintzak aplikatzea edo jarraitzea:** Baldintza batzuk betetzea eskatzen duen produktu edo zerbitzu bat kontratatzen baduzu, horiek betetzen jarraitzen duzula egiaztatzeke beharrezko datuen tratamenduak egingo ditugula jakinarazten dizugu. Era berean, jakinarazten dizugu ezen, titularkiderik izanez gero, kontuak partekatzen dituzun gainerako titularkideek zeharka jakin dezaketela baldintza horiek betetzeari buruzko informazioa.

Adibidez, kolektibo profesional jakin bateko kide izateagatik deskontuak eskuratzeke eskubidea dakarren produktu edo zerbitzuren bat kontratatzen baduzu, osasun-langileena edo segurtasun-kidegoena kasu, kontratu-harremanean egiaztatuko dugu kolektibo horretako kide izaten jarraitzen duzula. Horrez gain, produktu edo zerbitzu bat beste titular batzuekin partekatzen baduzu, gainerako titularrek jakin dezakete ezaugarri hori betetzen duzula kontuan deskontu horiek aplikatzen direla ikustean.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

Gainera, kontratatzen duzun produktu edo zerbitzua CaixaBank Payments & Consumer-ek merkaturatu arren beste enpresa batek jaulkitzen badu, enpresa hori izango da kontratu horri dagozkion datuen tratamenduaren arduraduna.

Horrek esan nahi du CaixaBank Payments & Consumer bidez, haren banku-aseguru operadore egoeran, VidaCaixak edo SegurCaixak jaulkitako aseguru bat kontratatzen baduzu, enpresa horiek izango direla zure datuen arduradunak, produktuen jaulkitzaile eta horien arduradun gisa.

Produktu edo zerbitzu bakoitzaren kontratu-dokumentazioan zehaztasunez informatzen dizugu horri buruz.

B. Kreditu-arriskua emateko eta haren jarraipena egiteko kaudimenaren eta itzultzeko gaitasunaren analisia.

Helburua: Datuen tratamendu honen helburua aldez aurretik emandako diruaren itzultzea, edo kuoten ordainketa geroratua dakarten produktu edo zerbitzuen eskatzaile edota titularrak ebaluatzea da, nahikoa kaudimen eta itzultzeko gaitasun duten aztertzen duten edota eman diren eragiketetan aurreikusitako ordainketei erantzuteko.

Aldez aurretik emandako diruaren itzultzea edo kuoten ordainketa geroratua dakarten eragiketak eskatzen dituzunean edo dagoeneko eman zaizkizunean, horren harira egingo diren kaudimen eta itzultzeko gaitasunaren analisiaren tratamenduei buruzko informazio xehatua zehatz-mehatz jakinaraziko zaizu eragiketa horiek eskatzen dituzunean sinatu beharko duzun eragiketan edo, jada onartuta diren eragiketen kasuan, dagokion kontratuan.

Finantzaketa dakarten produktuen eskatzaileen edo/eta titularren kaudimena eta itzultzeko gaitasuna aztertzeko egiten diren tratamenduak hauek dira:

- Kreditu-eragiketa berriak ematen direnean, eskatzaileen itzultzeko gaitasunaren analisia.
- Finantzaketa dakarten produktuen titularren kaudimenaren analisia gurekin mantentzen dituzten kreditu-eragiketen bizi osoan zehar, arriskuen barne-kudeaketarako eta horien ez-ordainketaren prebentziorako.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Eredueko estatistikoak egikarizetik lortutako datuak
- Kreditu-informazio sistemen datuak
- Equifax-en RISK SCORE datuak
- CIRBE datuak
- Datu demografikoak eta sozioekonomikoak
- Zurekin lotutako higiezin eta ibilgailuei buruzko datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Profilen erabilera: Tratamendu horretarako finantzaketa dakarten produktuen eskatzaile edota titularren kaudimenaren eta itzultzeko gaitasunaren analisirako eskusiboki erabiltzen dugun arriskuen profila landuko dugu.

- **Helburua:** Erabilitako profilaren helburua eragiketak ematean ez ordaintzeko probabilitatea zehaztea da, indarrean dauden eragiketen arriskua doitzeko egokia den ebaluatzea eta CaixaBank Payments & Consumer-i aplikatu dakizkiokeen kapitalaren betetze eta eskakizunen kalkulua egitea.

- **Ondorioak:** arrisku-profilak laguntza-tresnak dira arrisku-eragiketak eman edo ez erabaki behar denerako, edo emandako eragiketen mugak doitzeko.

Kanal elektronikoen bidez eskatutako eragiketen kasuan, emateko automatizatutako erabakiak eragin ditzakete edo ez, hurrengo "Bestelako informazio garrantzitsua" atalean xehatutakoaren arabera.

- **Logika:** Eskatzailearen profilak aurreko "Tratatutako datuen tipologia" epigrafean adierazitako informazioa erabiliko du.

Oinarrizko informazio horrekin interesdunaren datu horietako bakoitzari balio espezifiko bat emango zaio, eta horren baturak diru-betebeharren inguruko berankortasun edo ez betetzeko probabilitateari dagokion puntuazio bat emango du.

Aldagai bakoitzaren garrantzia eta azken emaitzan duen eragina aldez aurretik kalkulatu du eredu matematikoen bidez, eta kontuan hartzen dira erakundearen arriskuari buruzko barne politikak.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Erabaki automatizatuak:** Kaudimenaren eta itzultzeko gaitasunaren analisirako, kanal elektronikoen bidez egindako eskaeretan, tratamendu automatizatuak erabiliko ditugu zure ezaugarrien eta emandako informazioaren arabera finantzaketa egokitzen den ala ez egiaztatzeko.

Eskatutako finantzaketa ez balitz egokia izango erabilitako profilen kalkuluaren arabera egindako zure itzultzeko gaitasunari dagokionez, ezingo da produktua kontratatu, eta zure kontratazio-eskaera ukatu egingo da kanal honetan modu automatizatuan.

Berriro eragiketa eska dezakezu analisiak ez ditzan barne hartu erabaki automatizatuak, erabaki automatizatuak aurkaratzeko edo soilik tratamendu automatizatu batean oinarritutako erabaki baten objektu ez izateko zure eskubidea erabiltzeko, zuzenean CaixaBank Payments & Consumerekin harremanetan jarritz, politika honen 4. epigrafean jakinarazitako kanalen bidez.

- **Arauzko betebeharrak:** Tratamendu horiek zurekin mantentzen dugun kontratu-harremana egikartzeko beharrezkoak izateaz gain, tratamendu hau Sistema finantzarioaren erreforma-neurriei buruzko 44/2002 Legeak, Kreditu-erakundearen ordenatze, gainbegiratze eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legeak eta mailegu arduratsuak emateari buruzko araudien gainerako betebehar eta printzipioetan ezarritakoaren arabera gauzatzen da, eta, kreditu-erakunde finantzario bat garenez, araudi horiei lotuta gaude.
- **Kreditu-informazioko sistemei kontsultak egitea:** Kaudimenaren analisirako beharrezko kreditu-informazioko sistemei kontsultak egingo dizkiegu gure interes legitimoan oinarrituz, zeina xehatuta dagoen 6.4.D atalean.
- **CIRBERi kontsulta egin eta jakinaraztea:** Kaudimenaren analisirako CIRBERi beharrezko kontsultak egin dizkiogu Sistema finantzarioaren erreforma-neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legean xedatutakoaren arabera. Era berean, kreditu-arriskuak hitzartuta diren pertsonak identifikatzeko beharrezko datuak jakinaraziko dira.

Tratamenduaren erantzunkideak: Sektore finantzarioari aplikatutako prudentzia- eta kaudimen-betekizunei buruzko sektore-araudiak bezeroei egindako kreditu-eragiketen ematea eta segimendua batera egitea agintzen du kreditu-erakundearen talde bateratu bera osatzen duten sozietate guztien artean.

Horregatik, CaixaBank Taldeko hurrengo enpresek zure datuak tratatuko dituzte tratamendu horretarako erantzunkidetasunean.

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- Telefónica Consumer Finance, E.F.C., S.A.
- CaixaBank Equipment Finance, S.A.U.
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.
- Corporación Hipotecaria Mutua, S.A.U., Establecimiento Financiero de Crédito
- Hipotecaixa 2, S.L.U.
- Banco BPI, S.A.
- Wivai Select Place S.A.U.

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

6.3 ARAU-BETEBEHARRAK BETETZEKO BEHARREZKOAK DIREN TRATAMENDUAK

Datu-tratamendu horien oinarri juridikoa da agin dakigukeen lege-betebehar bat betetzeko beharrezkoak izatea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 6.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hortaz, beharrezkoak dira gurekin kontratu-harremanak ezarri eta mantendu ahal izateko. Ez bazenu nahi tratamendu hori egiterik, harreman horiek amaitu beharko genituzke, edo ezingo genituzke ezarri oraindik hasi gabe baleude.

Jarraian adierazten dira arau-betebeharrak betetzeko beharrezko tratamenduak, (A)tik (F)rako hurrenkeran. Horietako bakoitzerako hurrengo adieraziko dugu: helburuaren deskribapena (**Helburua**), tratatutako datuen tipologia (**Tratatutako datuen tipologia**), beharrezkoa bada, profilen erabilerrari buruzko informazioa (**Profilen erabilera**), tratamenduaren inguruko bestelako beharrezko informazioa (**Bestelako informazio garrantzitsua**), eta CaixaBank taldeko beste enpresa batzuekin erantzunkidetasun erregimenean egindako tratamenduak diren ala ez (**Tratamenduaren erantzunkideak/arduraduna**).

A. Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudia betetzeko tratamendua

Helburua: Tratamendu horren helburua da **kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeari buruzko 10/2010 Legeak** gure jarduerari ezarritako neurriak hartzea.

Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeari buruzko araudia betetzeko, tratamendu-eragiketak hauek egiten dira:

- Bezeroen inguruan behar bezalako eginbide- eta ezagutza-neurriak betetzea ahalbidetzen duten informazioa eta dokumentazioa biltzea;
- Ematen diguzun informazioa egiaztatzea;
- Erantzukizun publikoko karguetan aritzen zaren edo aritu zaren egiaztatzea;
- Zure arrisku maila kategorizatzea, eta haren arabera behar bezalako eginbide-neurri batzuk aplikatuko dira kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudian oinarrituz;
- CaixaBank Payments & Consumer bidez egikaritzen diren eragiketen analisisa egitea, lege-betebeharrek ezarritakoaren arabera.
- Sozietateekin duzun harremana, eta beharrezkoa bada, horien jabetza-egituran duzun kontrol-posizioa egiaztatzea eta;
- Hilero zure informazioa titulartasun finantzarioen fitxategian jakinarazi eta eguneratzea, zeina kapitalak zuritzea eta diruzko arau-hausteak prebenitzeko batzordearen zerbitzu exekutiboaren (SEPBLAC) erantzukizuna den.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatutako ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioei buruzko datuak
- Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:

▪ Arriskua ebaluatzeko datuak edo *scoringa* (6.2.B epigrafean definitutako tratamendua).

- Eredu estatistikoak egikarizetik lortutako datuak
- Administratzaile, kargu funtzional eta sozietate-loturei buruzko datuak
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Profilen erabilera: Tratamendu horrek profil bat lantzea dakar berarekin, eta hori kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko 10/2010 Legeak gure jarduerari ezarritako neurriak hartzeko erabiliko dugu eskusiboki.

- **Helburua:** Kapitalen zuritzearen edo terrorismoaren finantzaketaren objektu izan daitezkeen operatiboak kontratatzea eragozteko du helburu erabilitako profilak.
- **Ondorioak:** Kapital zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzio-unitateei laguntza ematen dieten tresnak dira profilak, eta lagundu egiten diete zehazten operatiboak kapital zuritzearen edo terrorismoaren finantzaketaren objektu izan daitezkeen edo ez, eta ondorioz, horiek onartzen edo ez.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo enpresek tratatuko dituzte zure datuak erantzunkidetasunean.

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- VidaCaixa, S.A. de seguros y reaseguros
- BPI Vida e Pensões – Companhia de Seguros, S.A.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- CaixaBank Asset Management SGIIC, S.A.U
- Telefónica Consumer Finance, E.F.C., S.A.
- Buildingcenter, S.A.U.
- Livingcenter Activos Inmobiliarios, S.A.U.
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.
- Corporación Hipotecaria Mutua, S.A.U., Establecimiento Financiero de Crédito
- CaixaBank Wealth Management Luxembourg, S.A.
- CaixaBank Asset Management Luxembourg, S.A.
- BPI Gestão de Ativos, SGOIC, S.A.
- Banco BPI, S.A.
- Bankia Habitat, S.L.U.
- Puerto Triana, S.A.U.

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

B. Zerga arloko araudia betetzeko tratamendua

Helburua: Tratamendu horren helburua da abenduaren 17ko 58/2003 Zergen Lege Orokorra eta azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, zeinaren bitartez ezartzen baita kontu finantzario jakinen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen bizitegi fiskala identifikatzeko eta elkarrekiko laguntzaren arloan haien inguruan jakinarazteko betebeharra, eta indarrean dauden gainerako araudi fiskalek gure jarduerari ezarritako neurriak hartzea.

Zerga arloko araudia betetzeko, tratamendu-jarduera hauek egiten dira:

- Zerga-arauek ezarritako fiskalitateari dagokion informazioa eta dokumentazioa biltzea, eta;

- Fiskalitateari dagozkion datuak administrazio publikoari jakinaraztea, arauak hala ezartzen dutenean edo autoritateak hori eskatzen dutenean.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

C. Nazioarteko zigor eta kontraneurri finantzarioen politiketatik eratorritako betebeharrak betetzeko tratamendua

Helburua: Tratamendu honen helburua da Europar Batasunak eta Espainiako Erresumak hartutako nazioarteko zigor eta kontraneurri finantzarioen programetan gure jarduerari ezarritako neurriak hartzea.

Nazioarteko zigor eta kontraneurri finantzarioen programak betetzeko, egiaztatu egingo dugu Nazio Batuek, Europar Batasunak eta/edo Espainiako Erresumak ezarritako nazioarteko zigor ekonomiko-finantzarioen gaitako lege, erregulazio, zuzentarau, ebazpen, programa edo neurri murriztaileetan barne hartuta dauden pertsona edo erakundeen zerrendetan zauden.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Nazioarteko zigorrei dagozkien datuak

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Zehapen-programak:** CaixaBank Payments & Consumerek kontsultatu egiten ditu Erresuma Batuko Office of Financial Sanctions Implementation (OFSI) of Her Majesty's Treasury (HTM) edota U.S. Department of the Treasury's Office of Foreign Assets Control (OFAC) erakundeak ezarritako nazioarteko zehapen ekonomiko-finantzarioen programak, 6.4.G atalean zehazten dugun gure interes legitimoan oinarrituta.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo enpresek tratatuko dituzte zure datuak erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- VidaCaixa, S.A. de seguros y reaseguros
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- CaixaBank Asset Management SGIIC, S.A.U
- Telefónica Consumer Finance, E.F.C., S.A.
- Buildingcenter, S.A.U.
- Livingcenter Activos Inmobiliarios, S.A.U.
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.

- Corporación Hipotecaria Mutual, S.A.U., Establecimiento Financiero de Crédito
- Banco BPI, S.A.
- CaixaBank Wealth Management Luxembourg, S.A.
- Bankia Habitat, S.L.U.
- CaixaBank Equipment Finance, S.A.
- Puerto Triana, S.A.U.
- CaixaBank Asset Management Luxembourg, S.A.
- BPI Gestão de Ativos, SGOIC, S.A.
- BPI Vida e Pensões – Companhia de Seguros, S.A.

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

D. Kexa eta erreklamazioei erantzuteko tratamendua.

Helburua: Tratamendu horren helburua da CaixaBank Payments & Consumer-en aurrean egiten diren kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzutea, erakunde finantzario egoeran aplikagarria den araudiaren arabera; zehazki, azaroaren 22ko 44/2002 Legea eta ECO/73/2004 agindua, zeinak erabiltzaile finantzarioen kexa eta erreklamazioak artatuko dituen bezeroarentzako arreta-zerbitzu bat eskuragarri izatea behartzen duen.

Era berean, Datu pertsonalak eta eskubide digitalen bermea babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Legea; horrek tratamenduaren arduraduna, kasu honetan CaixaBank Payments & Consumer, datuak babesteko bere ordezkariaren aurrean aurkezten diren erreklamazioak artatzera behartzen du, eta baita interesdunek erabil ditzaketen datuen babesaren arloko eskubideak artatzea ere.

Kexa eta erreklamazioak artatzeko tratamenduaren arloko araudia betetzeko, tratamendu-eragiketa hauek egiten dira:

- Erabiltzaile finantzarioaren kexa edo erreklamazioa CaixaBank Payments & Consumeren bezeroarentzako arreta-zerbitzuak hartzea;
- Aurkeztutako kexa edo erreklamazioari ezarritako epean erantzutea. eta
- Datuak babestearen arloko eskubideak eta CaixaBank Payments & Consumeren datuak babesteko ordezkariari egindako kontsultak artatzea, kontrol-agintaritzarekin (Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) kolaboratzeko beharrezko jardueraz gain

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia eta horien edukia 5. epigrafean zehazten dira, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Gaitasun juridikoari buruzko datuak
- Komunikaziorako behar bereziei buruzko datuak
- Urrakortasun egoerei buruzko datu sentikorrak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagiritan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioei buruzko datuak
- Berezko nabigazio-datuak
- Kreditu-informazio sistemen datuak
- CIRBE datuak

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

6.4 CAIXABANK PAYMENTS & CONSUMEREN INTERES LEGITIMOAN OINARRITUTAKO TRATAMENDUAK

Tratamendu horien oinarri juridikoa CaixaBank Payments & Consumerrek edo hirugarren batek helburu dituen **interes legitimoak** asetzea da, **betiere interes horien gainean ez direnean gailentzen zure interesak, edo zure eskubide edo funtsezko askatasunak**, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO) 6.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Tratamendu horiek egikaritzeak esan nahiko du haztapen bat egin izango dugula zure eskubideen eta gure interes legitimoaren artean, eta azkena gailentzen dela. Bestela, ez genuke tratamendua egingo. Noiznahi kontsulta dezakezu tratamendu baten interes legitimoaren haztapenaren analisia zure kontsulta delegado.proteccion.datos@caixabank.com helbide elektronikora bidalita.

Halaber, **gogoan izan eskubidea duzula interes legitimoan oinarritutako tratamenduei aurka egiteko**. Uste baduzu CaixaBankek eta, hala badagokio, enpresa erantzunkideek kontuan hartu behar dutela egoera bereziren bat edo datuen tratamendua egiteari uztea justifikatzen duen beste arrazoiren bat, erraz eta doan eska dezakezu, 4. epigrafean adierazitako bitartekoen bidez.

Jarraian, tratamendu horiek xehatuko ditugu, (A)tik (F)rako hurrenkeran. Horietako bakoitzerako hurrengoa adieraziko dugu: CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa (**CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa**), helburuaren deskribapena (**Helburua**), tratatutako datuen tipologia (**Tratatutako datuen tipologia**), beharrezkoa bada, profilen erabilerrari buruzko informazioa (**Profilen erabilera**), tratamenduaren inguruko bestelako beharrezko informazioa (**Bestelako informazio garrantzitsua**), eta CaixaBank taldeko beste enpresa batzuekin erantzunkidetasun erregimenean egindako tratamenduak diren ala ez (**Tratamenduaren erantzunkideak/arduraduna**).

A. Langile, agente eta hornitzaileen jardueraren kudeaketa

CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa: Tratamendu hori egiteko CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa da langile, agente, hornitzaile eta preskriptoreekin harremanak kudeatzea, haien jarduera profesionalean oinarrituta.

Helburua: Langile, agente, hornitzaile eta preskriptoreen jarduera, helburu eta erronka profesionalen jarraipena egitea da tratamendu horren helburua, horiek bezeroek mantentzen dituzten eragiketa eta kontratazioen analisiaren bitartez.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduari aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumer erakundeak kontuan hartu behar duela egoera bereziren bat edo datuen tratamendua egiteari uztea justifikatzen duen beste arrazoiren bat, erraz eta doan eska dezakezu 4. epigrafean adierazitako kanalen bidez.
- **Zure informazioaren erabilera osagarria:** Datu-tratamendu horietan, bezeroen informazioa tratatzen da, baina zure informazioa osagarria da lortu nahi den helburuarekiko. Tratamendu horiek ez daukate inolako eragin edo ondoriorik datuen titularrentzat.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

B. Iruzuraren prebentzioa

CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa: Erakundeari edo bere bezeroei galera ekonomikoak edo erreputazioaren galerak eragin diezazkieketen iruzurrak prebenitzea da tratamendu hori egiteko CaixaBank Payments & Consumer eta epigrafe honetan xehatutako enpresa erantzunkideen interes legitimoa.

Helburua: Tratamendu horren helburua eragiketa edo portaera makurrak saihesteko beharrezko neurriak hartzea da horiek jasan aurretik, edo haien ondorioak leheneratzea gertatuko balira, erakundeari edo bere bezeroei iruzurra egiteko saiitzen diren eragiketa edo portaera susmagarriak identifikatuz.

Iruzurraren aurkako borrokan tratamendu-eragiketa hauek egiten dira:

- Erakundearekin erlazionatzen diren bezeroen nortasuna egiaztatzea informazio edo eragiketen gaineko iruzurrezko atzitzeak prebenitzeko.
- Gure sistemetan egiten diren kontratazio eta eragiketak berrikusi eta aztertzea gure bezeroak edozein kanaletan iruzurretik babesteko eta zibererasoak prebenitzeko.
- Zure nortasuna eta emandako nortasun-dokumentuen baliozkotasuna kontsultatzea segurtasun indar eta kidegoek eta antzeko erakundeek, adibidez INTERPOL (Krimen gaietarako Poliziaren Nazioarteko Erakundea), kudeatutako datu-base nazional eta nazioartekoaren aurrean, ematen diguzun nortasun-dokumentuaren titularra zarela balioztatzen eta ordezen iruzurretik (beste pertsona bat zure lekuan jartzea) babesteko.
- PAYGUARD iruzurra prebenitzeko zerbitzuan barnean hartutako informazioa kontsultatzea, iruzurrezko kontuak detektatzeko, eta behar denean zure iruzurrezko eragiketak jakinarazteko.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Ageriko eta ordainketa kontuetako laburpen eta ordainagirietan ikusitako hirugarrenen datuak
- Zurekin izandako komunikazioei buruzko datuak
- Berezko nabigazio-datuak
- Datu geografikoak
- Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:
 - Arriskua ebaluatzen dituzten datuak edo *scoringa* (6.2.B epigrafean definitutako tratamendua)
- Eredu estatistikoak egikaritzetik lortutako datuak

Profilen erabilera: Tratamendu honek zure operatiboaren eta ohiko jarduerari buruzko profil bat lantzea dakar berarekin, eta hori eskusiboki iruzur saiakeraren adierazgarri izan daitezkeen egoera irregularrak identifikatzeko erabiliko dugu

- **Helburua:** Erabilitako profilen helburua da ohikoak ez diren operatiboak edo elkarreraginak, edo zure portaera-profiletik urrundutakoak identifikatzea, zeinak iruzur saiakerak edo informazioa modu iruzurrezko batean atzitzeko saiakerak izan daitezkeen.
- **Ondorioak:** Profilak iruzurrezko eragiketak identifikatzen laguntzen duten tresnak dira eta haien erabilerak berekin dakar eragiketaren berrikuste xehatua, automatikoki egikaritutako blokeoa edo ukapena bezalako neurriak aplikatzea.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Erabaki automatizatuak:** Iruzurra prebenitzeko tratamendu automatizatuak erabiliko ditugu iruzurrezko eragiketak detektatzen saiatzeko.

Egin ostean ezeztatu ezin diren eragiketen kasuan, hala nola, berehalako ordainketak edo transferentziak, tratamendu automatizatuak eragiketa susmagarriak detektatzen badituzte, eta horiek ez badira legitimoak, blokeatu egingo dituzte egikaritzea eragotzita.

Eragiketa berriz eska dezakezu, erabaki automatizatu aurkaratzeko edo soilik tratamendu automatizatu batean oinarritutako erabaki baten objektu ez izateko zure eskubidea erabiltzeko, zuzenean CaixaBank Payments & Consumerekin harremanetan jarri, politika honen 4. epigrafean jakinarazitako kanalen bidez.

- **Tratamenduari aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumeren eta, hala badagokio, enpresa erantzunkideek kontuan hartu behar dutela egoera bereziren bat edo datuen tratamendua egiteari uztea justifikatzen duen beste arrazoiren bat, erraz eta doan eska dezakezu, 4. epigrafean adierazitako kanalen bidez.
- **PAYGUARD Iruzuraren prebentziorako zerbitzua:** CaixaBank PAYGUARD iruzurraren prebentziorako zerbitzura atxikita dago, eta bertan herrialdeko erakunde finantzario nagusiek parte hartzen dute eta Sociedad Española de Sistemas de Pago, S.A.k (Iberpay) kudeatzen du.

Zerbitzu horrek kontuen arteko mugimenduekin erlazionatutako iruzur-mailak murriztea du helburu, horretarako bezeroen kontu korrontean edo aurrezki-kontuan egindako eragiketa susmagarri edo iruzurrezkoak detektatu, ikertu, kontrolatu eta salatzearen bitartez. Eragiketa horiei eragin diezaieken iruzurraren aurkako borrokako interes legitimoa da tratamenduaren oinarri juridikoa.

CaixaBankek barne hartu ahal izango ditu PAYGUARD Iruzuraren prebentziorako zerbitzuan eragiketa susmagarria edo iruzurrezkoa detektatu den kontuko titularren IBAN zenbakiari eta nortasun-datuei dagozkien datuak. Parte hartzen duten erakundeen zerrenda eguneratua kontsulta dezakezu hemen:

<https://www.iberpay.es/es/servicios/servicios/prevenci%C3%B3n-del-fraude/>

Datuak, gehienez, hogeita hamar egunez gordeko dira eragiketa susmagarrien kasuan, eta urtebetez egiaztatutako iruzurrezko eragiketen kasuan.

PAYGUARD Iruzuraren prebentziorako zerbitzuko erakunde parte-hartzaileak dira zure datuen tratamenduaren erantzunkideak. Erantzunkidetasun akordioaren funtsezko alderdiak eska ditzakezu mezu bat bidaliz www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos helbidera, eta datuen tratamenduari dagozkion eskubideak erabil ditzakezu 4. epigrafean adierazitako edozein kanal erabiliz. Eskubideak baliatzea eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) aurrean erreklamazioak aurkeztea.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo enpresek tratatuko dituzte zure datuak erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- Global Payments Moneytopay, EDE, S.L.

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioaren funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

C. Kreditu-informazio sistemei kontsultatu eta komunikatzea finantzaketa eskatzen duten produktuen eskaera eta ondorengo kudeaketaren gainean.

CaixaBank Payments & Consumeren interes legitimoa: Tratamendu hau egiteko CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa da finantzaketa eskatzen duten produktuen eskatzaile edo titularren ez-ordainketak eta berandutzeak saihestea.

Helburua: Tratamendu honen helburua da kaudimena eta itzultzeko gaitasuna balioztatzea (i) emandako eragiketetatik eratorritako interesdunek ordainketa betebeharrak zuzen betetzen dituztela bermatzeko, (ii) emandako eragiketen jarraipena eta kudeaketa egiteko, eta (iii) ez-ordainketak eta berankortasun egoerak prebenitu eta kudeatzeko.

Kaudimen-fitxategien kontsulta eta komunikazioan tratamendu-eragiketa hauek egiten dira:

- Informazioa kontsultatzea: Finantzaketa eskatzen duten eragiketak eman aurretik edo emandako kredituaren arriskuaren jarraipena eta kudeaketa gauzatzeko, ondare eta kredituaren hurrengo kaudimen-fitxategien datu-baseak kontsultatuko dira: (i) Asnef fitxategia; (ii) Badexcug fitxategia eta;
- Zure datu pertsonalak jakinaraztea: Gure kontratu-harremanei dagokienez gurekin hartu duzun edozein diru-betebehar ordaintzeari utziko bazenio, ez-ordainketaren datuak ondare eta kredituko kaudimen-fitxategi berei jakinarazi ahal izango dizkiegu, araudian aurreikusitako baldintza eta betekizunen arabera.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologiak hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Kontratazio-datuak
- Oinarrizko datu finantzarioak
- Kreditu-informazio sistemen datuak

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduari aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumer erakundeak kontuan hartu behar duela egoera bereziren bat edo datuen tratamendua egiteari uztea justifikatzen duen beste arrazoiren bat, erraz eta doan eska dezakezu 4. epigrafean adierazitako kanalen bidez.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da kreditu-informazioko sistemak kontsultatzeari buruzko tratamendu-zatiaren arduraduna. CaixaBank Payments & Consumer eta Asnef eta Badexcug kaudimen-fitxategiek erantzunkidetasuneko araubidean egiten dute tratamenduaren zati hori, kreditu-informazioko sistemei komunikatzeari dagokiona. Jarraian, kreditu-informazioko sistemen harremanetarako datuak zehazten dizkizugu:

- Asnef fitxategia: Asnef Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito. Posta-kutxa 10546, 28080 Madrid (sac@equifax.es)
- Badexcug fitxategia: Posta-kutxa 1188, 28108 Alcobendas (badexcug@experian.com)

D. Harremanetarako datu gehigarriak lortzea ez-ordainketengatik egoerak kudeatzeko

CaixaBank Payments & Consumeren interes legitimoa: CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa ez-ordainketa egoeretan zorra berreskuratzea da, eta horretarako bezeroen harremanetarako datuak eguneratuta izan behar dira.

Helburua: Tratamendu honen helburua da bezeroen harremanetarako informazio gehigarria biltzea, haiekin harremanetan jartzeko kontratu-betebeharrak betetzen ez dituzten kasuan.

Harremanetarako datu gehigarriak zorra berreskuratzeko agentzien bitartez eskuratzen dira zerrenda publikoetatik (páginas blancas, amarillas eta Lleida.net) eta pribatuetatik (Equifax edo Detectives), betiere bildutako datuek kalitatearen printzipioa betetzen dutela eta legalki eskuratzen direla bermatuta.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologiak hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Sarbide publikoko iturrietatik eta erregistro publikoetatik lortutako datuak

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduari aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumer erakundeak kontuan hartu behar duela egoera bereziren bat edo datuen tratamendua egiteari uztea justifikatzen duen beste arrazoiren bat, erraz eta doan eska dezakezu 4. epigrafean adierazitako kanalen bidez.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

E. Kudeaketa-txostenak egitea eta eredu matematikoak sortzea

CaixaBank Payments & Consumeren interes legitimoa: Tratamendu hau egiteko CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa da zure enpresa- eta merkataritza-jarduera diseinatu, antolatu eta optimizatzea ahalik eta modu eraginkorrenean; horretarako, enpresaren eta merkatuaren kudeaketa eta jarduerari buruzko txostenak izan behar dira, informazioaren analisi aurreratuko algoritmo matematikoez gain.

Helburua: Tratamendu honen helburua da enpresaren jarduerari eta hark merkatuarekin duen harremanari buruzko txostenak sortzea, bere bezero-oinarriaren osaera eta bilakaerari buruzkoak, eta bere produktu eta zerbitzuen egokitasun eta eraginkortasunari buruzkoak. Horiek zuzendaritza eta kudeaketa eraginkorra ahalbidetuko dute, eta baita informazioaren kalkulu eta analisi aurreratuak eskatzen dituzten eta politika honetan xehatzen diren tratamenduak egitea ahalbidetzen duten eredu estatistiko eta matematikoak sortu eta mantentzea ere.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuak tratamendu bakoitzean aldeztatik identifikatu direnak izango dira, ahal denean, anonimizazio edo pseudonimizazio teknikak aplikatuz tratamendu horiek haien titularren eskubideen gainean eraginik ez dutela bermatzeko, eta tratamenduen emaitza informazio estatistikoa edo agregatua duten txostenak dira, edo formula matematikoak edo algoritmikoak.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduari aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumer erakundeak kontuan hartu behar duela egoera bereziren bat edo datuen tratamendua egiteari uztea justifikatzen duen beste arrazoiren bat, erraz eta doan eska dezakezu 4. epigrafean adierazitako kanalen bidez.
- **Datuen tratamendu osagarria:** Txosten estatistiko eta eredu matematikoak sortzeko datuen tratamenduen helburua ez da bezeroei dagozkien datuak indibidualki tratatzea.

Datu-tratamendu hori beharrezkoa da, baina helburu nagusiarekiko osagarria. Helburu nagusia kudeaketa-txostenak, edo formula algoritmiko edo matematikoak sortzea da, eta horregatik ahal den guztietan tratatutako informazioaren anonimizazio, pseudonimizazio eta minimizazio tekniken bitartez egiten dira.

Tratamendu horiek ez dute inolako eragin indibidualik edo ondoriorik datuen titularren gainean.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

F. Oinarritzko merkataritza-profilean oinarritutako merkataritza-komunikazioak bidaltzea

Nori aplikatzen zaio tratamendu hori?: Zure datuekin tratamendu hori burutuko dugu, baldin eta:

- Politika honen 6.1.A., 6.1.B. eta 6.1.C. ataletan deskribatutako merkataritza-tratamenduen gainean ez badiguzu adierazi lehentasunik
- horri buruzko komunikazio pertsonalizatu bat bidali izan badizugu; eta
- horren aurka egiteko eskubidea ez baduzu gauzatu.

CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa: CaixaBank Payments & Consumer-ek tratamendu hori egiteko duen interes legitimoa zorroan dituzun produktu eta zerbitzuen merkaturatzea indartzea eta bezeroen fidelizazioa da.

Helburua: Tratamendua horren helburua da CaixaBank Payments & Consumer-ekin kontratatuta dituzun antzeko produktu eta zerbitzuei buruzko jakinarazpen komertzialak bidaltzea, zure datuekin egingo dugun oinarrizko profil komertzial batean oinarrituta.

Tratatutako datuen tipologiak: helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologiak hauek dira:

- **Identifikaziorako eta harremanetarako datuak:** izen-abizenak, sexua, posta, telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanetarako informazioa, bizilekuaren helbidea, nazionalitatea eta jaiotze-data, komunikatzeko hizkuntza eta nortasun-agiria.
- **Zure lan-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko datuak eta datu sozioekonomikoak:** zure lan-jarduera edo jarduera profesionala, diru-sarrerak edo ordainsariak.
- **Kontratazio-datuak:** kontratatutako edo eskatutako produktu eta zerbitzuak (berezkoak edo hirugarrenenak), kontratatutako produktu edo zerbitzuaren titularraren, baimenduaren edo ordezkariaren izaera, eta finantzaketa-eragiketen gaineko informazioa eta mugimenduak.
- **Oinarrizko datu finantzarioak:** uneko saldoak eta produktu eta zerbitzuen historikoak, eta kontratatutako produktu eta zerbitzuen ordainketa-historia.
- **Eredu estatistikoak exekutatzetik lortutako datuak:** bezeroen datuei eredu matematikoak aplikatzetik lortutako emaitzak erabiltzen ditugu iruzurraren aurka borrokatzeko, zure kontsumo-ohiturak, lehentasunak edo kontratazio-joerak ondorioztatzeko, gure araudi-betebeharrak betetzeko eta zure produktu edota zerbitzuen operatiboak kudeatzeko.
- **Politika honetan aurreikusitako beste tratamendu batzuk gauzatzetik lortutako datuak:**
 - **Arriskuen ebaluaziorako datuak edo *scoring-a*:** kuoten bidezko finantzaketa- edo ordainketa-eragiketetan, ordaintzeko edo ez ordaintzeko den ahalmena edo arrisku-mugak ondorioztatuko ditugu, horien datuekin kalkulatzeko diren eredu matematiko estatistikoak aplikatuta (6.2.B epigrafean zehaztutako tratamendua).
- **Datu demografikoak eta sozioekonomikoak:** pertsona jakinei lotu gabeko datu estatistikoak dira, eremu geografiko, adin-tarte edo jarduera profesionaleko sektoreei lotutakoak; datu horiek bezeroen informazioarekin erlazionatzeko erabiliko ditugu.

Profilen erabilera: Tratamendu horretarako oinarrizko profil komertzial bat prestatuko dugu aurrez adierazi dizkizugun datu hutsekin:

- **Profilaren helburua:** erabilitako profilaren helburua da zer produktu eta zerbitzu interesa dakizkizukeen ondorioztatzea, horien kontratazioa eskaintzeko, eskaintza komertzial generikoak eskaini beharrean.
- **Ondorioak:** oinarrizko profil komertzialaren erabileraren ondorioa da CaixaBank Payments & Consumeren produktu eta zerbitzuei buruzko eskaintzak bidaltzea, pertsonalizatuta daudenak adierazi dizkizugun datuen bitartez. Profil-lanketa hori ez dugu inolaz ere erabiliko produktu edo zerbitzurik ukatzeko, ezta kreditu-mugak zehazteko ere.

Tratamendu horri aurka egiteak ez du eragotzi, mugatu edo baldintzatuko gure produktu eta zerbitzuen katalogo osorako sarbidea, eskura izango baituzu beti.

Edozein produktu edo zerbitzuren kontratazioa eskatzen baduzu, eskaera zurekin ebaluatuko da gure prozedura arrunten arabera, tratamendu horri aurka egiteak eraginik izan gabe ebaluazio horretan.

Tratamendu hori ez onartzeak ere ez du eragotziko zurekin harremanetan jartzea kontratatuta dauzkazun produktu eta zerbitzuen kudeaketa operatiborako.

- **Logika:** Oinarrizko profil komertzial hori "Tratatutako datuak" atalean adierazitako datuetatik abiatuz kalkulatzen da, hamahiru hilabeteko tartearekin.

Datu horiei ezaugarri antzekoak dituzten bezeroei iraganean hautemandako jokabideetatik abiatuz lortutako formula matematikoak aplikatuko zaizkie; eran horretan, bezeroak kontsumorako zer joera duen ondorioztatu ahalko da. Formula matematiko horien bidez, bezeroaren profilaren amaierako emaitzan tratatutako datuetako bakoitzaren garrantzia zehaztu daiteke.

Horren azken emaitza bezeroak produktu edo zerbitzu batean duen interesaren probabilitatea da.

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduaren aurka egiteko eskubidea:** Interes legitimoan oinarritutako tratamenduen aurka egiteko eskubidea duzu.

Erraz eta doan egin dezakezu, esteka honen bidez: https://www.caixabank.es/apl/particulares/gdpr/index_es.html? empresa = 6 & derecho = oposicioncomunicaciones

Horrez gain, 4. epigrafean adierazitako ohiko kanalak ere eskura dituzu.

Aurka egiteko zure eskubidea erabiltzea erabakiko bazenu, jakinarazten dizugu tratamendua egiteari utziko diogula, datu-tratamendua egiteari uztea justifikatuko duen arrazoiren bat adieraztea eskatu gabe.

- **Ordaintzeko gaitasunaren alde aurreko egiaztapena:** Igorri nahi dizkizugun eskaintzak kuoten ordainketa edo finantzaketa ondorio duten produktu eta zerbitzuetan oinarritzen direnean, ordaintzeko zure gaitasuna egiaztatuko dugu alde aurretik.

Egiaztapen hori gure Pribatutasun-politikaren 6.2.c epigrafean xehatutako tratamenduaren bidez egingo dugu, zure finantza-egoeraren inguruan dugun ezagutzarako egokiak diren kreditu-muga eta itzultze-epaia eskaintzeko Espainiako Bankuak eskatzen dituen finantzaketa-produktuen eskaintzarako erantzukizun-printzipioei jarraikiz, kreditu- eta mailegu-erakunde arduratsuen zuhurtziazko gainbegiratzearen eta kaudimenaren araudiaren arabera.

- **Tratamenduaren indarraldia:** Tratamendu hori 2022ko urriaren 10etik aurrera sartuko da indarrean. Nolanahi ere, informazio-komunikazio pertsonalizatua jasoko duzu alde aurretik.

Tratamendu hori egiteari utziko diogu, beste betekizunik gabe, honako bi egoera hauetako edozeinetan:

- Zurekin harremanetan jartzen garenean 6.1. (A, B eta C) ataletan deskribatutako CaixaBank Taldearen enpresen tratamendu komertzialetarako zure baimena eskatzeko, bai zuk tratamendu horiek baimentzen zein aurkaratzen dituzunean.
- **Aurka egiteko zure eskubidea** erabiltzen duzunean.

Tratamenduaren arduraduna: CaixaBank Payments & Consumer da tratamendu horren arduraduna. Tratamendua ez da erantzunkidetasunean oinarritzen.

G. OFSI eta OFAC nazioarteko zehapen eta kontrako neurri finantzarioen politikak

CaixaBank Payments & Consumer-en interes legitimoa: Ameriketako Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko nazioarteko zehapen eta kontrako neurri finantzarioen programak betetzea da tratamendu hori egiteko **CaixaBank Payments & Consumeren** eta epigrafe honetan xehatutako enpresa erantzunkideen interes legitimoa, herrialde horietan haien merkataritza-jarduera garatu ahal izateko.

Helburua: tratamendu honen helburua da Erresuma Batuko Office of Financial Sanctions Implementation (OFSI) of His Majesty's Treasuryk (HMT) eta U.S. Department of the Treasury's Office of Foreign Assets Control (OFAC) hartutako nazioarteko zehapen eta kontrako neurri finantzarioen programetan aurreikusitako neurriak hartzea.

Nazioarteko zehapen-programak eta kontrako neurri finantzarioak betetzeko, enpresa erantzunkideek ziurtatu egingo dugu ez zarela agertzen erakunde horien neurri murriztaileen barruan dauden pertsonen edo erakundeen zerrendetan.

Tratatutako datuen tipologiak: Helburu horretarako tratatuko ditugun datuen tipologia, eta horien edukia 5. epigrafean dago xehatuta, eta hauek dira:

- Identifikaziorako eta harremanetarako datuak
- Nazioarteko zigorre dagozkien datuak

Bestelako informazio garrantzitsua: Jarraian, tratamendu honi buruzko bestelako informazio garrantzitsua aurkituko duzu:

- **Tratamenduari aurka egiteko eskubidea:** Uste baduzu CaixaBank Payments & Consumer erakundeak kontuan hartu behar duela egoera bereziren bat edo datuen tratamendua egiteari uztea justifikatzen duen beste arrazoiren bat, eta doan eska dezakezu 4. epigrafean adierazitako kanalen bidez.

Tratamenduaren erantzunkideak: CaixaBank Taldeko hurrengo enpresek tratatuko dituzte zure datuak erantzunkidetasunean:

- CaixaBank, S.A.
- CaixaBank Payments & Consumer, E.F.C., E.P., S.A.U.
- VidaCaixa, S.A. de seguros y reaseguros
- Nuevo Micro Bank, S.A.U.
- CaixaBank Asset Management SGIC, S.A.U
- Telefónica Consumer Finance, E.F.C., S.A.
- Buildingcenter, S.A.U.
- Livingcenter Activos Inmobiliarios, S.A.U.
- Unión de Crédito para la Financiación Mobiliaria e Inmobiliaria, CREDIFIMO, E.F.C., S.A.U.
- Corporación Hipotecaria Mutua, S.A.U., Establecimiento Financiero de Crédito
- Banco BPI, S.A.
- CaixaBank Wealth Management Luxembourg, S.A.
- Bankia Habitat, S.L.U.
- CaixaBank Equipment Finance, S.A.
- Puerto Triana, S.A.U.
- CaixaBank Asset Management Luxembourg, S.A.
- BPI Gestão de Ativos, SGOIC, S.A.
- BPI Vida e Pensões – Companhia de Seguros, S.A.

Erantzunkidetasunean gauzatutako tratamenduaren akordioen funtsezko alderdiak azaltzen dira hemen: www.caixabank.es/empresasgrupo.

7. Datuen hartzaileak

Datuen tratamenduaren arduraduna eta erantzunkideak

CaixaBank Payments & Consumer-eko bezero gisa tratatutako datuak CaixaBank Payments & Consumer-en tratatzen ditugu. Tratamenduak erantzunkidetasunean egiten badira, CaixaBank Taldeko enpresek egiten dituzte, tratamendu bakoitzerako adierazi dugunaren arabera.

Agintari eta erakunde ofizialak

CaixaBank Payments & Consumer bezalako kreditu-erakundeak eta gainerako ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak legez egiten ditugun transakzioen inguruan informazioa ematera behartuta egon gaitzke Europar Batasunaren barruan zein kanpoan kokatutako beste herrialde batzuetako autoritate eta erakunde ofizialei. Betebehar hori terrorismoaren finantzaketa eta antolatutako delinkuentzia mota larrien aurka borrokatzeko eta kapitalak zurtzea prebenitzeko esparruan ematen da, eta baita Espainiako Bankuak eta Europako Banku Zentralak egindako kreditu-erakundeen zentzuzko ikuskaritzaren esparruan ere.

Halaber, betebehar horri lotuta egon daitezke ordainketa-sistemak eta zerbitzu teknologikoen emaileak, haiekin harremanak mantentzen ditugunean eta transakzioak gauzatzeko datuak igortzen dizkiegunean.

Diru-betebeharren betetze edo ez-betetzeari buruzko fitxategiak

Gure kontratu-harremani dagokienez gurekin hartu duzun edozein diru-betebehar ordaintzeari utziko bazenio, ez-ordainketaren datuak hurrengo kredituko informazio-sistemei jakinarazi ahal izango dizkiegu, araudian aurreikusitako baldintzen eta betekizunen arabera:

- > Asnef fitxategia: Asnef Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito. Posta-kutxa 10546, 28080, Madril (sac@equifax.es)
- > Badexcug fitxategia: 1188 Posta-kutxa, 28108, Alcobendas (badexcug@experian.com)

Halaber, jakinarazten dizugu hurrengo eskubideak erabil ditzakezula: datuetara sartzea, zuzentzea, aurka egitea, ezabatzea, mugatzea, datu pertsonalak lekualdatzea eta automatizatutako erabaki baten xede ez izatea, legerari jarraituz eta adierazi dizkizugun helbideetan betetze edo ez-betetze fitxategien aurrean.

Datuen jakinarazpena zerbitzuak azpikontratatzean

Batzuetan, datu pertsonalak atzi ditzaketen zerbitzuen emaileetara jotzen dugu.

Zerbitzu-emaile horiek berme egoki eta nahikoak eskaintzen dituzte datuen tratamenduari buruz, eta arretaz hautatzen ditugu horien zerbitzuak. Hautaketa egiterakoan, eskakizun espezifikoak hartzen dira kontuan zerbitzuak emateko datu pertsonalak tratatu behar direnean.

Zerbitzu-emaileen esku mota honetako zerbitzuak utz ditzakegu:

- > Backoffice finantzarioaren zerbitzuak
- > Administrazio-laguntzako zerbitzuak
- > Auditoretza- eta aholkularitza-zerbitzuak
- > Zerbitzu juridikoak eta aktiboak eta ordaindu gabekoak berreskuratzeko zerbitzuak
- > Ordainketa zerbitzuak
- > Marketin- eta publizitate-zerbitzuak
- > Inkesta zerbitzuak
- > Call center zerbitzuak
- > Zerbitzu logistikoak
- > Segurtasun fisikoaren zerbitzuak
- > Zerbitzu informatikoak (sistemen eta informazioaren segurtasuna, zibersegurtasuna, informazio-sistemak, arkitektura, ostatatzea, datuak prozesatzea)
- > Telekomunikazio zerbitzuak (ahotsa eta datuak)
- > Inprimaketa, gutuneratze, posta-bidalketa eta mezularitza zerbitzuak
- > Informazioa (digitala eta fisikoa) babesteko eta suntsitzeko zerbitzuak

- > Eraikinak, instalazioak eta ekipamenduak mantentzeko zerbitzuak

8. Datuak gordetzeko epeak

Kontratu-harremanak izateko gordetzea

Ezarri ditugun kontratu-harremanak indarrean jarraitzen duten bitartean tratatuko ditugu zure datuak.

Baimenean oinarritutako tratamenduetarako baimenak kontserbatzea Zure baimenean oinarritutako datuen tratamenduak zuk horiek ezeztatu arte burutuko ditugu.

CaixaBank Taldeko enpresekin dituzun produktu eta zerbitzuen kontratu guztiak ezeztatzen badituzu baina ez badituzu ezeztatzen guri emandako baimenak, bezero izateari uztean automatikoki balio gabetuko ditugu.

Datuak lege-betebeharrak betetzeko eta erreklamazioak egin, gauzatu eta defendatzeko gordetzea

Behin baimena kentzearen bitartez zure datuak erabiltzeko baimenak ezeztatuta, edo gurekin ezarri dituzun kontratu- edo negozio-harremanak amaitzean, zure datuak gordeko ditugu soilik lege-betebeharrak betetzeko eta kontratu-harremanetatik eratorritako ekintzen preskripzio-epean zehar erreklamazioak egin, erabili edo defendatzea baimentzeko.

Datu horiek tratatuko ditugu helburu horietarako soilik erabiltzen direla bermatzeko beharrezko neurri tekniko eta antolatzaileak aplikatuz.

Datuak suntsitzea

Zure datuak suntsituko ditugu CaixaBank Payments & Consumer-en jarduera arautzen duten arauak agintzen duten gordetze-epeak eta zure eta gure artean ezarritako harremanetatik eratorritako ekintza administratibo edo judizialen preskripzio-epeak igarotzen direnean.

9. Europako Esparru Ekonomikotik kanpo egindako datuen transferentziak

CaixaBank Payments & Consumer-en zure datuak tratatzen ditugu Europako Esparru Ekonomikoaren barruan, eta, oro har, esparru horretan kokatzen diren edo babes-maila egokia duten herrialdeetako zerbitzu-hornitzaileak kontratatzen ditugu.

Preskriptorengana jotzen badugu edo Europako Esparru Ekonomikotik kanpo edo babes-maila egokirik ez duten herrialdeetan tratamenduak egiten dituzten zerbitzu-hornitzaileak erabili behar baditugu, zure datuen tratamenduaren segurtasuna eta legitimitatea bermatuko ditugu.

Horretarako, DBEOn ezarritakoaren arabera, preskriptore eta zerbitzu-hornitzaile horiei berme egokiak izatea agintzen dizkiegu; adibidez, Europako arauak ezartzen duten gisa, informazioaren babesa bermatuko duten arau korporatibo lotesleak izan beharko dituzte, edo Europar Batasunaren ereduak klausulak harpidetu beharko dituzte. CaixaBank Payments & Consumer-ek hornitzaile horiei eskatzen dizkien berme egokien kopia eska dezakezu, Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jarrita, helbide honetan: www.caixabank.com/delegadoprotecciondedatos.

10. Erabaki automatizatuak

Politika honen 6. epigrafean jakinaraziko dizkizugu erabaki automatizatuak txertatzen dituzten tratamenduak.

Gainera, gurekin mantentzen dituzun kontratu-harremanetan zehar tratamendu automatizatuan soilik eta eskusiboki oinarritutako erabakiak har ditzaketen mekanismoak erabiliko bagenitu (hau da, pertsona batek parte hartu gabe), zure gain edo zure pertsonaren gain eragin juridikoak eragin litzatekeenak, edo zuzen eragin nabarmena izango luketenak (adibidez, produktu jakin baten kontratazioa ukatzea), horri buruz jakinaraziko dizugu eskatu diguzun produktu edo zerbitzuaren kontratu-dokumentazioan bertan, eta baita erabakia hartzearen aldeko logikaren inguruan ere.

Halaber, zure eskubideak eta interesak zaintzeko neurriak hartuko ditugu une horretan, giza esku-hartzea lortzeko, zure ikuspuntua adierazteko eta erabakia aurkaratzeko eskubidea emanaz.

11. Berrikuspena

Pribatutasun-politika honen berrikuspena egingo dugu behar bezala informatuta egoteko beharrezkoa den bakoitzean; adibidez, arau edo irizpide berriak argitaratzean edo tratamendu berriak egitean.

Pribatutasun-politika honetan funtsezko aldaketak edo aldaketa garrantzitsuak gertatzen diren bakoitzean, ohiko komunikazio-kanalak erabiliz jakinaraziko dizugu.

Azken berrikuspenaren data

2023ko urriaren 18a